Lurralde : invest. espac.	43	2020	p: 283-301	ISSN 0211-5891	ISSN 1697-3070 (e)

EKONOMIA SOZIALAREN ANALISIA LURRALDE IKUSPEGITIK: EUSKAL HERRIAN, ESPAINIAN, FRANTZIAN ZEIN EUROPAN

EUSEBIO LASA ALTUNA*

ENEKOITZ ETXEZARRETA ETXARRI**

*Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
UPV-EHUko GEZKI–Gizarte Ekonomia eta zuzenbide kooperatiboaren Institutuko kidea
eusebio.lasa@ehu.eus

**Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
UPV-EHUko GEZKI–Gizarte Ekonomia eta zuzenbide kooperatiboaren Institutuko kidea
enekoitz.etxezarreta@ehu.eus

Laburpena

Ekonomia sozialak azken 40 urtetan sendotze prozesu bat bizi izan du, eta hau neurri handi batean sektorea figura juridiko konkretuekin identifikatzetik dator. Sektorea modu horretan definitzeak erraztu egiten du berau ikusgarri egitea. Bide horretatik, Euskal Herrian, Espainian, Frantzian zein Europa mailan ekonomia sozialaren kontzeptua nahiko finkatua dago, eta finkapen horretan eragin zuzena eduki dute maila anitzetan garatzen joan diren erakunde ordezkari, ebazpen instituzional, ikerlan eta lege garapenek.

Hitz gakoak: Ekonomia Soziala, Berrikuntza Soziala, Ekonomia Solidarioa, Euskal Herria, Espainia, Frantzia, Europa.

ANÁLISIS DE LA ECONOMÍA SOCIAL DESDE EL PUNTO DE VISTA TERRITORIAL: PAÍS VASCO, ESPAÑA, FRANCIA Y EUROPA.

Resumen

La economía social ha vivido un proceso de fortalecimiento a lo largo de los últimos 40 años. Ello, en gran medida, ha sido consecuencia de la identificación del sector con una figura

jurídica concreta. Esta manera de definir el sector de la economía social le hace más visible. Además, el concepto de la economía social en el País Vasco, España, Francia y Europa está bastante asentado. La evolución del concepto en esos territorios se ha llevado a cabo gracias a la implantación de los representantes institucionales, al desarrollo de resoluciones institucionales, a la investigación y al avance en materia legal.

Palabras clave: Economía Social, Innovación Social, Economía Solidaria, País Vasco, España, Francia, Europa.

SOCIAL ECONOMY ANALYSIS FROM THE TERRITORIAL POINT OF VIEW: BASQUE COUNTRY, SPAIN, FRANCE AND EUROPE.

Summary

The social economy has been strengthened in a process that stretches over 40 years and this is largely due to the identification of the sector with particular legal entities. The fact that it defined itself in this manner has raised its prominence. It has attained substantial consolidation in the Basque Country, Spain, France, and Europe. Implementation of the concept in these territories owes its success to the deployment of institutional representatives, the development of institutional resolutions, research, and progress on the legal front.

Keywords: Social Economy, Social Innovation, Solidarity Economy, Basque Country, Spain, France and Europe

1. Ekonomia sozialaren kontzeptuaren bilakaera

Ekonomia soziala ez da fenomeno berria. Dena dela, azken hamarkadetan ekonomia sozialaren inguruko interesa indartu egin da. Urte hauetan eman diren aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoek 2008ko krisia sortarazi ondoren, galdera ugari plazaratu dituzte. Ekonomia eta gizartearen arteko lotura ezak erakusten du gaur egungo krisia ez dela koiunturala garapen ereduaren apurketa sakon bat baizik. Horrekin batera ekonomia soziala Berrikuntza Sozialaren laborategia bezala aurkezten da. Hau da, ekonomia sozialak beste mugimendu eta dinamika sozialekin batera gaitasun handia eduki dezake ekonomia eredu berri bat eraikitzeko gizartearekin eta politikarekin lotura zuzena mantenduz.

Ekonomia sozialaren eraldaketa gaitasuna aztertu aurretik komeni da ekonomia sozialaren kontzeptu beraren bilakaera eta gaur egungo kokapena ondo finkatzea. Ekonomia sozialaren

kontzeptuak badu gaur egun erakunde mailako ordezkaritza eta onespen publiko zein juridiko garrantzitsua herrialde batzuetan. Baina kontzeptuak gure artean duen edukia behar bezala ulertzeko komenigarria da, aldez aurretik, kontzeptu honen garapen historikoan eman diren urratsen interpretazio labur batekin hastea.

Ekonomia sozialaren kontzeptuak munduan zehar azken bi mendeetan bi loraldi bizi izan dituela esan ohi da: lehena, XIX. mendearen erdialdean, fenomeno kooperatiboaren eztandari lotua, eta bigarrena, XX. mendeko azken laurdenean, "gizarte ekonomia berria" deitua izan denaren agerpenarekin batera.

Bi garai historikotan, kontzeptuaren hedapen eta sendotzea hiru ardatz nagusiren arteko elkar eraginean oinarritu izan da (Etxezarreta, Pérez de Mendiguren eta Morandeira, 2014): lehenik sektoreko eragile ekonomikoen artean emandako artikulazio prozesuak leudeke, horien ondorioz kontzeptuari loturiko ezaugarriak aldarrikatu izan direlarik printzipioen karta eta mota ezberdinetako adierazpen instituzionalen bitartez; behin sektoreak bere burua modu bateratuan aurkeztu ostean, aitorpenak iritsi izan dira bi eragile ezberdinen aldetik: akademia, alde batetik, sektore hau ikerketa gai gisa landuaz eta herri erakundeak, beste aldetik, sektorearen ikusgarritasun, neurketa eta sustapen neurrien bitartez. Hiru ardatz horien bilakaera historikoa garatuko dugu zehatzago jarraian.

1.1. Kontzeptuaren hiru ardatzak: eragile ekonomikoak, akademia eta erakunde publikoak

Hurbilketa teorikoa ezberdin samarra izan bada ere aipaturiko bi loraldietan, mugarri bertsuak aurkitzen ahal dira prozesu osoan. XIX. mende erdialdeko prozesuei erreparatuz, iraultza industrialaren eta kapitalismoaren hasierako garapenaren aurkako erresistentzia giroan sortu ziren ekimen autogestionarioetan oinarritu zuten beren teorizazioa XIX. mendeko lehen *ekonomialari sozialek*. Sozialismo utopikoaren ikusmoldetik Robert Owen edo Charles Fourier bezalako enpresari ekintzaileek sustaturiko lehen esperientzia kooperatiboetan (eskualde kooperatiboak, falansterioak, etab.) hasiko dira lehen lehenik ekonomia sozialari loturiko enpresa ezaugarriak agertzen. Lehendabiziko kooperatiba kontsideratzen den Rochdaleko esperientzian ezarriko dira lehen aldiz printzipio kooperatiboen ernamuinak: atxikipen askea, demokrazia, etekinen banaketa, hezkuntza, e.a.

Esperientzia horien analisia burutuz agertuko dira lehen "ekonomialari sozialak", ekonomia sozialaren kontzeptua estreinakoz erabiltzen dutenak horrelako esperientziak izendatzeko, eta baita ere ekimen horien bereizgarri diren bi ezaugarri azpimarratzeko: i) alde batetik,

haren izaera moralizatzailea, gizakien portaeran eragina duelako; eta, ii) bestetik, haien eragin sozioekonomikoa, jardunbide ekonomiko eraginkorragoak eta gizakoiagoak direlako[1].

XX. mendearen azken hiru hamarkadetan hedaturiko definizioa aski doituagoa da gaur egun ekonomia soziala esatean ulertzen dugunarekiko, baina kontzeptuaren garapen prozesuak ibilbide bertsua jarraitu izan du.

Ipar Amerikako ekonomia sozialaren izaera aztertzen badugu Quebeceko hurbilketak garrantzia ematen dio erakunde desberdinen (besteak beste kooperatibak, mutualitateak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak) funtzionamendu demokratikoari eta gobernantzari. Bouchard-ek (2013) 1996an Québecen finkatutako definizioa honela laburtzen du: "ekonomia sozialaren" definizioak maiz kontrajarriak diren bi termino elkartzen ditu: "ekonomia" terminoak ondasunen eta zerbitzuen ekoizpen zehatzari egiten dio erreferentzia -enpresa antolaketa egitura moduan- ongizate kolektiboa hobetzeko asmoz. "Sozial" terminoa berriz jarduera horien onura sozialei buruz (ez bakarrik onura ekonomikoa) ari da hitz egiten. Abantaila sozial horiek neurtzeko kontuan hartuko dira zenbateraino garapen demokratikoari, gizartea aktibo mantentzeari eta ahalduntze indibidualari eta kolektiboari laguntzen dion. Hain zuzen ere, onura sozialek biztanleriaren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzen lagunduko dute, bereziki zerbitzu kopuru handiagoa hornituz. Baita ere onura sozial horiek sortutako lanpostu-kopuruaren terminoetan ebaluatu daitezke. Zehazki esanda, ekonomia sozialaren esparruak komunitatean oinarritutako ahalduntze asmoarekin eraikitako jarduera eta erakunde guztiak bere barnean hartzen ditu ondorengo oinarri eta arauekin: i) helburua, etekinak ateratzea da baino, aldi berean, beren kideei edo komunitateari zerbitzatzea da; ii) ez daude gobernuaren kontrolaren azpian; iii) arauetan eta jardunbidetan erabakitzeko prozedura demokratikoak txertatuko dituzte erabiltzaileak eta langileak barne hartuz; iv) irabaziak eta sarrerak banatzeko garaian pertsonak eta lana kapitalaren beharraren aurretik ipiniko dira eta v) beren jarduerak parte hartzean, ahalduntzean eta pertsona eta komunitateen erantzukizunean oinarritzen dira.

Ipar Amerikako beste lurraldeetan ekonomia sozialaren kontzeptua ez da Quebecen bezala ulertzen. Kanadako ingeles lurraldeetan ekonomia sozialaren barruan ez dira merkatuan oinarritutako erakundeak bakarrik sartzen. Bertan dago, baita ere, antolatutako gizarte zibil osoa (boluntario eta irabazi asmorik gabeko erakundeak, sindikatuak, elkarte sozialak, erlijio-erakundeak e.a.) eta irabazi asmorik gabeko sektore publikoa (besteak beste ospitaleak eta unibertsitateak) (Quarter, Mook eta Armstrong, 2009). Gainera, Amerikako Estatu Batuetan eta Kanadako ingeles aldean boluntario/irabazi asmorik gabeko sektorearen definizioa alde batetik murritzaileagoa da. Izan ere, bakarrik kontuan hartzen du erakunde zehatzaren

1 Leon Walrasen eskutik, ekonomia politikoaren maila berberean ipini eta "sortutako aberastasun soziala banatzeko teoria"-ren osagai dela irizten zaion adinean, Gizarte Ekonomia zientzia mailako ikergaia izatera igarotzen da (eduki ideologiko edo moralizatzailetik harago). Analisi zehatzago batera-ko ikus Monzón (2003) eta Chaves (1997).

legezko estatusa eta bestetik zabalagoa da irabazi asmorik gabeko erakunde guztiak sartzen dituelako bokazio ekonomikoa eduki edo ez. Quebecen berriz, ekonomia sozialak enpresa-esparru zabalagoa hartzen du barnean kooperatibak eta mutualitateak sartzen direlako eta gizarte zibilaren eremua estuagoa da bakarrik helburu sozial batekin ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzten erakundeak kontuan hartzen dituelako. Ondorioz, Quebecen definizio zabal bat erabilita kooperatibak, ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak eta mutualitateak sartuko lirateke ekonomia sozialaren definizioan.

Europara hurbiltzen bagara lehen lehenik sektoreko eragileak (kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak) dira Frantzian 1970ean edota Belgikan 1990ean hainbat kontseilu eta batzordetan elkartzen direnak eta, irizpide edo printzipio zehatz batzuetan oinarrituta, bestelako eragile ekonomikoetatik bereizten den osotasun baten partaide aldarrikatzen direnak.

1980an Frantziako mutualitate, kooperatiba eta elkarteen nazio batzordeak argitaraturiko "Ekonomia Sozialaren Printzipioen Gutunak" jaso zituen estreinakoz Europa mailan irizpide horiek, zazpi puntutan oinarrituz: i) pertsonaren lehentasuna, ii) borondatezko partaidetza, iii) kontrol demokratikoa, iv) elkartearen interesa eta interes orokorraren uztardura, v) elkartasuna, vi) kudeaketarako autonomia eta vii) etekinen banaketaren gaineko politikak.

Aldi berean eta prozesu honekin batera sortzen dira honelako entitateak ikertzea helburu duten lehen erakunde akademikoak, CIRIEC-International aitzindari dutela. Ikerlari sare unibertsitario horien jarduera erabakigarria izan zen kontzeptua sendotzeko, haren bereizgarri teorikoak argitu eta Europa mailako kontularitza sistema nazionalen arabera entitate hauen azterketa estatistikoa ere burutu zutelako.

Ekonomia sozialaren alorrean mugarri funtsezkoa izan da "Ekonomia Sozialeko enpresen Kontu Sateliteak gauzatzeko Eskuliburua"-ren proposamena (Barea eta Monzón, 1995, 2007; Monzón, 2010), sektorea zenbatzeko metodologia bat ezartzen duelako, nazio mailako kontu sistemei egokitutakoa. Egokitzapen honetatik abiatuz iristen da CIRIECek proposatzen duen ekonomia sozialaren egungo definiziora[2].

Behin sektorea zehazki definitu ondoren, eta haren zenbaketarako metodologia egokiak ezarri eta gero, egingarriagoa dirudi alor honen sustapenerako politika publikoak abiaraztea. Europan, legegintza eta sustapenerako ekimen ezberdinak garatu izan dira azkenaldian. Aitzindaria izan zen ekonomia sozialaren 2011ko lege espainiarra eta haren ondotik etorri ziren Portugalekoa 2013an eta baita ere 2014ko Frantziako ekonomia sozial eta solidarioaren legea.

2 Metodologia honen arabera, Ekonomia Sozialaren esparrua zehazki definitu eta bi azpisektoretan banatzen da, merkatukoa edo enpresaritzakoa eta ez-merkatukoa; eta lehen aipatu ditugun kideek bere garaian aldarrikatu zituztenekin zerikusi zuzena duten zazpi irizpidetan oinarritzen da.

Estatu partaideez gain ekonomia sozialak geroz eta onespen handiagoa izan du Europar Batasunaren mailan ere. Monzón-ek (2016) oso era xehatuan azaltzen duen legez, Europako Batzordean Jaques Delorsen agintaldian (1985-1995) bultzada handia eman zitzaion kooperatiben auziari eta bi urrats erabakigarri gertatu ziren bultzada honen ondorioz: i) Europar Legebiltzarreko ekonomia sozialeko "Intertaldea" (*intergroup*) eratu zen, zeinak bultzatu izan dituen 1990az geroztik kooperatiba eta bestelako entitateen gaineko ebazpen eta ekintzarako plan proposamen ugari, eta ii) *Social Economy Europe* Batzorde Europarraren sorrera 2000. urtean, zeinetan elkartzen baitira Europar Batasuneko kooperatiba, mutualitate, elkarte eta fundazioen erakunde ordezkari nagusiak[3].

2. Azken 40 urteak Espainian, Frantzian eta Euskal Herrian

Monzón-ek (2016) burutzen duen errepasoarekin jarraitzeko, esan beharra dago Espainia mailan zein Hego Euskal Herrian ere ekonomia sozialaren kontzeptuaren garapena urrats antzekoetatik igaro dela.

Espainiari erreparatuz, sektoreko eragileak antolatzen hasiko dira 80ko hamarkadaren erdialdera COCETA[4] (Espainiako Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioa) eta CONFESAL[5] (Espainiako Lan Elkarteen Konfederazioa) bezalako erakundeen bitartez. Gaur egun ekonomia sozialeko erakunde guztien erakunde ordezkagarri nagusia CEPES[6] da, 1992az geroztik jardunean diharduena.

Herri erakundeen aldetik aitortza 1990an sorturiko INFES (*Instituto Nacional de Fomento de la Economía Social*) erakundearen bitartez heldu zen lehenik, eta behin betiko bultzada aipatu bezala 2011ko ekonomia sozialaren legearen onarpenaren bitartez gauzatu da. Lege honen inguruko analisiak ugariak diren arren (Perez de Uralde, 2014; Etxezarreta eta Morandeira, 2012; Fajardo, 2012; e.a.) legearen onarpenak kontzeptuaren sendotzeari bi ekarpen nagusi egin dizkiola ondorioztatuko genuke: alde batetik bistarazi egin du errealitate ekonomiko bat, printzipio konkretu batzuen bitartez ezaugarritzen dena. Beste aldetik, sektorea sendotzeko sustapen neurriak hartzeko marko juridikoa ezarri du, nahiz eta askok argudiatzen duten legez, marko horren garapena hutsaren hurrengoa izan dela legea onartu eta gero.

Hego Euskal Herrira etorriz, ekonomia sozialaren kontzeptuan zentraltasun historikoa bete izan du Mondragon Taldean bilduriko mugimendu kooperatiboak. Fenomeno honen inguruan

3 Europar Batasunaren esparruan ekonomia sozialak izan duen bilakaera sakonago aztertzeko ikusi Monzón eta Chavez (2016).

4 http://www.coceta.coop/, COCETA, 2018/05/20 egunean begiratua.

5 https://www.confesal.org/WEB/index.php, CONFESAL, 2018/05/20 egunean begiratua.

6 http://www.cepes.es/, CEPES, 2018/05/20 egunean begiratua.

nazioarte mailan egin diren ikerlanak zenbatu ezinak diren arren, komeni da aipatzea Hego Euskal Herrian badela ekonomia sozialik Mondragon Taldetik kanpo ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren (2018) arabera 2017an 2223 kooperatiba eta lan sozietateak zeuden 68648 langileekin. Autonomia horretan ekonomia sozialeko eragileak oso modu antolatuan dihardute beraien erakunde ordezkagarrien bitartez: KONFEKOOP[7], Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, ASLE[8], Euskadiko Lan Elkarteen Elkartea, EHLABE[9] Euskadiko Enplegu Zentro Berezien Elkartea, GIZATEA[10], Euskadiko Gizarteratze Enpresen Elkartea eta REAS Euskadi[11], nagusiak aipatzearren. Erakunde mota guztiak batzen dituen erakundea ere indarrean da EAEn, EGES[12] izena daramana. Bestalde, 2008ko abenduaren 30ean Eusko Jaurlaritzak eta UPV-EHUk sinatutako lankidetza hitzarmen baten harira jaio zen Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia (GEEB)[13], Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia sozialaren jarduera behatzeko eta horren jarraipena egiteko. Nafarroako Foru Komunitatean (NFK), berriz, Ugalderen (2017) arabera 2017an ekonomia sozialeko 1064 enpresa zeuden 16430 langileekin. Bestalde, Foru Komunitate horretan ekonomia sozialeko erakunde garrantzitsuenak Nafarroako CEPES[14] inguruan biltzen dira: ANEL[15], Nafarroako Ekonomia Sozialen Enpresak, UCAN[16], Nafarroako Nekazaritzako eta Elikadurako Kooperatiben Batasuna, CIS[17], Nafarroako Gizarteratzeko eta Laneratzeko Elkartea eta Nafarroako REAS[18], Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea.

Halaber, herri erakundeen aldetik 1986an Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen den Kooperatiba eta Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzatik bideratzen dira esparru honetako erakundeen sustapenerako politika publiko nagusiak. Zuzendaritza honetaz gain badira herri erakundeekiko interlokuzioa burutzen duten bestelako erakunde publiko-pribatuak ere, nagusiena aipatzearren Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua[19]da. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari dagokionez Ekonomia Sozialeko gaiak Garapen Ekonomikorako Sailetik zuzentzen dira. Gainera, 2017ko martxoaren 22an, sektoreko erakunde nagusien

7 https://www.konfekoop.coop/?idioma=es, Konfekoop, 2018/05/20 egunean begiratua.

8 http://asle.es/, ASLE , 2018/05/20 egunean begiratua.

9 http://www.ehlabe.org/, EHLABE, 2018/05/20 egunean begiratua.

10 http://www.gizatea.net/, Gizatea, 2018/05/20 egunean begiratua.

11 https://www.economiasolidaria.org/reas-euskadi, REAS-Euskadi, 2018/05/20 egunean begiratua.

12 https://www.eges.eus/es-eges, EGES, 2018/05/20 egunean begiratua.

13 http://www.oves-geeb.com/eu/behatokia/nortzuk-gara, OVES-GEEB, 2018/05/20 egunean begiratua.

14 http://www.cepesnavarra.org/, CEPES Nafarroa, 2018/05/20 egunean begiratua.

15 *http://www.anel.es/*, ANEL, 2018/05/20 egunean begiratua.

16 http://ucan.es/, UCAN, 2018/05/20 egunean begiratua.

17 http://www.centrosdeinsercion.org/centrosdeinsercion/Centros_de_Insercion_Navarra.html, CIS Nafarroa, 2018/05/20 egunean begiratua.

18 http://www.economiasolidaria.org/reasnavarra, REAS Nafarroa, 2018/05/20 egunean begiratua.

19 http://www.csce-ekgk.coop/es/, CSCE-EKGK, 2018/05/20 egunean begiratua.

parte-hartzearekin, Nafarroako Ekonomia Sozialeko 2017-2020 Plana[20] onartu zen 2.828.000 euroko aurrekontuarekin.

Azkenik, mundu akademikoari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatean, Mondragon Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean daude ekonomia sozialaren gaian espezializaturiko ikerketa-institutuak (GEZKI[21], Lanki[22], IEC[23], hurrenez hurren) eta irakaskuntza mailan ekonomia sozialaren ikusgarritasuna oraindik orain oso mugatua den arren, gradu ondoko ikasketen eskaintzan ere badu bere presentzia[24].

Itçainak (2017) egiten duen hausnarketari jarraituz Frantzian ekonomia sozialak indar berri bat hartzen ari da azken urte hauetan. Bereziki 2014 urtean ekonomia sozial eta solidarioaren legea onartu ondoren. Lege berri horrekin Espainian, Portugalen eta Europako beste herrialde batzuetan markatutako bidea jarraitzen du. Lege berri horrekin 1980an argitaraturiko "Ekonomia Sozialaren Printzipioen Gutunaren" bitartez lortutako aitortza sendotu egingo da.

Ipar Euskal Herrira etorriz Iparraldeko ekonomia sozialaren garapenak mugarri garrantzitsu bat finkatuko du 70eko hamarkadan. Garai horretan, abertzale mugimenduak bultzatuta, tokian tokiko garapenaren aldeko mugimendu sozialak osatzen hasiko dira. Gainera, Hego Euskal Herriko mugimendu kooperatibistak Iparraldeko lehen kooperatiben sortzea hurbiletik jarraitu eta lagunduko du. 1974tik aurrera langile kooperatiben mugimenduak gorputza hartzen hasiko da Partzuer[25] elkartearekin. Hemen-Herrikoa[26], berriz, 1979-1980 urtean jaioko da. Nekazaritza txiki eta iraunkorraren mugimenduan ELB[27] sindikatua 1980an abiatuko da eta Arrapitz Federazioa[28] 1991an. Mugimendu horrek aurrera egin zuen eta 2000ko hamarkadan ekonomia sozialaren bigarren jauzi bat ikusiko dugu. Ekoizpenari eta lanari kontsumoaren eta elkartrukearen arloak gehituko zaizkio. Ingurumenari lotutako kezkak gero eta handiagoak dira eta zirkuitu laburren ideia agertuko da. Testuinguruko horretan euskal moneta "euskoa" plazaratuko da 2012an. Ekonomia sozialaren bigarren belaunaldi horrek ere Hego Euskal Herriarekin harremanak sendotuko ditu, besteak beste, nekazaritza biologikoan, euskaran, kulturan, komunikazioan eta hedabideetan. Baita ere

20 http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/plan_integral_de_economia_social_v6.pdf, Nafarroako Ekonomia Sozialeko 2017-2020 Plana, 2018/05/20 egunean begiratua.

21 http://www.gezki.eus, GEZKI, 2018/05/20 egunean begiratua.

22 http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/ikerketa/ikerketa-taldeak/lanki, Lanki, 2018/05/20 egunean begiratua.

23 http://derecho.deusto.es/cs/Satellite/derecho/es/instituto-de-estudios-cooperativos-0, ICE Deusto, 2018/05/20 egunean begiratua.

24 https://www.ehu.eus/es/web/economiasocialysolidaria/aurkezpena, Ekonomia Sozial eta Solidarioko EHUko Masterra, 2018/05/20 egunean begiratua.

25 http://www.euskonews.com/0664zbk/elkar_eu.html, Partzuer, 2018/05/20 egunean begiratua.

26 http://hemen-herrikoa.org/, Hemen-Herrikoa, 2018/05/20 egunean begiratua.

27 http://www.euskonews.com/0492zbk/ebooks49204eu.html, ELB, 2018/05/20 egunean begiratua.

28 http://www.argia.eus/argia-astekaria/1760/arrapitz-federazioa, Arrapitz Federazioa, 2018/05/20 egunean begiratua.

azpimarratzekoa da Iparraldeko hainbat ekonomia Sozialeko eragilek (Lan Berri[29], Andere Nahia[30], Herrikoa, Laborantxa Iraunkorraren Mugimendua[31]) ireki dituzten harremanak Bearnesekin eta Landestarrekin, Tarnosen kokatuta dagoen Hego Akitaniako PTCEren[32] (Pôle Territorial de Coopération Économique) bitartez.

3. Ekonomia Soziala Europan

Orain arte garatutako azterketari jarraituz ondoriozta liteke Euskal Herrian, Espainian, Frantzian zein Europa mailan ekonomia sozialaren kontzeptua nahiko finkatua dagoela gaur egun, eta finkapen honetan eragin dutela maila anitzetan garatzen joan diren erakunde ordezkari, ebazpen instituzional, ikerlan eta lege garapenek. Hau horrela izanik ere, agerikoa da ekonomia sozialaren aitortza maila ezberdina dela Europan herrialde ezberdinen artean, eta kontzeptu honen ingurumarian badirela antzeko kontzeptuak, elkarren arteko nolabaiteko lehian aurkitzen direnak.

Monzón eta Chaves-en (2016) irudiko, bi dira tradizionalki ekonomia sozialari loturik agertu izan diren kontzeptuak: *Non Profit Organizations* kontzeptua batetik, eta *Solidarity Economy* bestetik. Azkenaldian, bestalde, kontzeptu berriak ere agertu izan dira, nagusiki hauexek: *Social Enterprise, Colaborative Economy, Economy for the Common Good, Circular Economy* edo *Corporate Social Responsability* bezalako adierak.

Horien guztien analisia burutzea eta horiek ekonomia sozialarekin dituzten ezberdintasunak jorratzea lan honen irismenetik kanpo geratzen denez[33], jarraian aztertuko dugu zeintzuk diren gure iritzian nazioarteko analisi alderatu esanguratsuenak, eta horietan proposatzen diren kontsentsuzko adiera nagusiak.

3.1. Ekonomia sozialaren aitortza maila ezberdina Europan: analisi alderatuak

Gure iritzian, bi dira Europa mailan azken urte hauetan burutu diren nazioarteko alderaketa lan nagusiak, zorroztasunez eta analisirako metodologia bertsuak erabiliz: alde batetik, Monzón et al.-ek (2016) koordinaturiko *Recent Evolutions of Social Economy in the European*

29 https://www.lexpress.fr/emploi/formation/detail-organisme.html?id=29812, Lan Berri, 2018/05/20 egunean begiratua.

30 http://www.anderenahia.asso.fr/, Andere Nahia, 2018/05/20 egunean begiratua.

31 http://www.eitelkartea.com/dokumentuak/berco.pdf, Laborantxa Iraunkorraren Mugimendua, 2018/05/20 egunean begiratua.

32 https://www.economie.gouv.fr/files/files/PDF/20150421_dossier_de_presse_ptce.pdf, Pôle Territorial de Coopération Économique, 2018/05/20 egunean begiratua.

33 Analisi alderatu horiek aztertzeko ikus adibidez: Monzón eta Chaves, 2016, 2012; Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2009; Monzón, 2006.

Union ikerlana; eta bestetik, Salamon eta Sokolowsky-k (2014) argitaratu dutena *The Third Sector in Europe: Towards a Consensus Conceptualization*.

Lehen ikerlanak bat egiten du bete betean ekonomia sozialaren korpus teoriko nagusiarekin. Bigarrenak, aldiz, *Non Profit Organizations* eskolako ikerlarien aztarna du, eta herrialde europarretan (herrialde anglosaxoniarretan ez bezala) adiera horrek duen jarraipen mugatuagoa dela medio, *Third Sector* adieraren alde egiten du kontsentsuzko proposamen gisa. Bi azterlan horietan berresten da gisa honetako entitateak izendatzeko erabiltzen diren kontzeptuak aldakorrak direla herrialdeen arabera. Azter ditzagun banan bana.

Azpiko taulan ikus daitekeenez, Monzón et al.-ek (2016) ekonomia sozialaren aitorpen mailaren arabera hiru herrialde multzo bereizten dituzte: i) aitortza maila altuko herrialdeen artean leudeke Espainia, Frantzia, Portugal, Belgika eta Luxenburgo, denak ere herrialde kontinentalak; ii) aitortza maila ertainarekin multzo handi xamar bat dago, nahiko heterogeneoa, mediterranear herrialde (Italia, Txipre, Grezia,..) eta eskandinabiar herrialde (Finlandia, Suedia, Danimarka…) gehienak baina baita beste herrialde multzo handi bat ere, eta azkenik iii) aitortza mailarik baxuena herrialde germaniarretan (Austria, Txekia, Alemania) eta baltikoetan (Estonia, Letonia, Lituania) aurkituko litzateke.

Erlazionaturiko kontzeptuei dagokienez, autoreek aipatzen dute Europan sona handiena duten adierak *Non Profit Organizations, Social Enterprise eta Third Sector* liratekeela, eta arrakasta gutxienekoak *Solidarity Economy* eta *Economy for the Common Good.*

Herrialdea	Kodea	Erakunde Publikoen aldetik	Ekonomia Sozialeko Elkarte eta Federazioen aldetik	Mundu Akademiko/ Zientifikoaren aldetik
ALEMANIA	DE	*	**	**
AUSTRIA	AT	*	**	**
BELGIKA	BE	***	***	**
BULGARIA	BG	**	**	**
DANIMARKA	DK	**	**	**
ERRESUMA BAT.	UK	**	**	**
ESLOVAKIA	SK	*	*	**
ESLOVENIA	SI	**	***	**
ESPAINIA	ES	***	***	***
ESTONIA	EE	**	**	*
FINLANDIA	FI	**	**	**

Herrialdea	Kodea	Erakunde Publikoen aldetik	Ekonomia Sozialeko Elkarte eta Federazioen aldetik	Mundu Akademiko/ Zientifikoaren aldetik
FRANTZIA	FR	***	***	**
GREZIA	EL	**	**	***
HOLANDA	NL	*	*	*
HUNGRIA	HU	**	**	**
IRLANDA	IE	**	***	**
ITALIA	IT	**	**	**
KROAZIA	HR	*	**	*
LETONIA	LV	*	**	**
LITUANIA	LT	**	**	*
LUXENBURGO	LU	***	***	**
MALTA	MT	**	*	**
POLONIA	PL	**	***	**
PORTUGAL	PT	***	***	**
RUMANIA	RO	**	**	**
SUEDIA	SE	**	**	**
TXEKIAR ERR.	CZ	*	**	**
ZIPRE	CY	**	**	**

*Onarpen txikia **Onarpen ertaina ***Onarpen handia

3.1.1. Taula: "Ekonomia sozialaren kontzeptuaren nazio-onarpena Europar Batasunan"

Iturria: Monzón eta al. (2016:39) taulatik euskaratua

Analisia eremuka egin behar izanez gero, Europa iparraldeko herrietan *Social Enterprise* adiera erabiltzen da gehienbat; eta ekialdeko herrialdeetan *Non Profit Organizations* eta *Voluntary Sector.*

3.2. Hirugarren Sektorea Europan

Salamon et al.-aren (2014) analisiaren arabera aniztasun handi bat nabari da Europako herrialdeen artean hirugarren sektore edo espazio hori izendatzerako garaian. Ekonomia sozialaren kontzeptuak erakunde tipo konkretu batzuei erreferentzia egiten dion arren, hirugarren sektorearen baitan sar litezkeen erakunde tipoen unibertsoa askoz lausoagoa

da, irekiagoa, eta beraz, herrialde bakoitzean nagusitzen den kontzeptuak errealitate soziekonomiko anitzago horri erantzuten dio.

Analisia herrialdeka honakoa litzateke: i) herrialde anglosaxoietan *Public Charities* da gehien onarturiko adiera; ii) herrialde germaniarretan *Non Profit Organizations* eta *Civil Society*; iii) Europako hegoaldean *Social Economy* litzateke hedatuena, eta iv) herrialde eskandinabiarretan zein erdialde-ekialdeko herrialdeetan ez dago hirugarren sektorea izendatzeko adiera orokorturik, edo adiera multzo oso handi bat erabiltzen da.

3.3. Homologazioa, arazoak eta kontsentsuzko printzipioen bilaketa

Nazioarteko analisi alderatuen emaitzetatik lehen ondorio bat atera genezake: ekonomia soziala kontzeptuaren ahulgune nagusietako bat kontzeptua figura juridikoen (edo erakunde tipoen) arabera sailkatzea da, herrialde bakoitzaren legedia ezberdina izanik figura juridikoak ere ezberdinak baitira herrialde bakoitzean. Horrela, kooperatibak oso ohikoak diren bezala tradizio frankofonoko herrialdeetan, ekialdeko herrialde post-sobietarretan kasik debekatuak aurkitzen dira. Era berean, herrialde anglosaxoniarretan *charity*ak oso formula zabalduak diren arren, ez dira guztiz homologagarriak beste herrialde askotan, eta horien parekoak bilatu behar lirateke (“elkarte” edo “gizarte zibileko erakundeak”). Figura juridikoen homologazio honen faltan, nazioartean baliagarria izango den kontzeptua proposatze aldera, sektorea printzipio orokorragoen bitartez sailkatzeko saioa egiten da.

Salamon et al.-ek (2014) proposatzen dute hirugarren sektorea litzatekeela kontsentsuzko adiera Europa mailan. Beren ustez, kontzeptu horren baitan zein motatako erakundeak leudekeen argitzeak desadostasunak sortzen dituen arren, adostasuna ageri da Europan hirugarren sektoreari lotzen zaizkion hiru printzipio nagusiren inguruan: i) etxegune, gobernu eta irabazi asmodun enpresak ez diren ekintza kolektibo zein indibidualak dira; ii) hirugarren pertsonei zein komunitateari baliagarria zaion zerbait sortzeko helburua dutenak, eta iii) borondatezko jardueren bitartez burutzen direnak (eta ez inork derrigortuta).

Printzipio horien arabera, hortaz, kontzeptu honen baitakoak lirateke: i) *Non Profit Organization*[34] guztiak; ii) ekonomia sozialari loturiko kooperatibak eta mutualitateak, baldin eta “etekinen banaketa mugatu” bat ziurtatzen badute “*for-profit*” enpresa ereduetatik urrunduz; iii) enpresa sozialak, baldin eta “etekinen banaketa mugatu” bat ziurtatzen badute “*for-profit*” enpresa ereduetatik urrunduz, eta azkenik iv) instituzioez harago, borondatezko lanean oinarritzen diren ekimen indibidualak ere barneratuko lirateke, zenbait herrialdeetan gizarte zibilaren parte izateari edo boluntariotzari oso lotuta agertzen baita nozio hau.

34 Nazio Batuen “*Handbook on Nonprofit Institutions in the System of National Account” gidaliburuan Irabazi Asmorik Gabeko erakundeak bezala kontsideratzen direnak; ingelesez “* NPIs” edo “non profit institutions”.

Monzón et al.-ek (2016) aldiz, *Non Profit Organization (NPO)* ikusmoldetik oso gertu aurkitzen den hirugarren sektorea kontzeptuaren aurrean, ekonomia sozialaren kontzeptuari hiru elementu bereizgarri ezartzen dizkiote:

> *(1) Non profit* irizpidea: ekonomia sozialaren kontzeptuak irizpide hau ez litzateke eskakizun orokortu bat izango, kide partaideen artean etekina banatzen duten enpresak (kooperatiba eta mutualitateak) baitira erakunde nagusiak.
>
> (2) *Demokrazia* irizpidea: ekonomia sozialaren kontzeptuak irizpide hau ezartzen du elementu bereizgarri nagusi gisa, eta praktika demokratikorik ziurtatzen ez duten erakundeak baztertzen ditu.
>
> (3) *Serving people* irizpidea: ekonomia sozialak zehatz ezartzen duen bitartean bere jarduera pertsonen edo gizarte-ekonomiako beste erakundeen mesedetan dela, hirugarren sektoreak hau oso modu heterogeneoan definitzen du, izan ere, *NPO* erakundeak sortuak izan baitaitezke hauek kontrolatu edo finantzatzen dituzten erakundeen mesedetan.

Laburbilduz, ondorioztatu genezake Europan ekonomia sozialarekin lehian diren kontzeptuen arteko gerturatze bat eman dela, nahiz eta elementu bereizgarri nagusiak hauexek liratekeen: hirugarren sektorea adierak merkatuko eragileei atea ixten die eta pertsona boluntarioak barneratzen ditu, eta ekonomia sozialak merkatuko eragileei ateak ez ixteaz gain, pertsonen zerbitzura egindako jarduera kolektibo eta demokratiko gisa bereziten du bere burua.

4. Etorkizuneko erronkak: ekonomia solidarioaren proposamen bizi-berritzailea

Orain arte garaturiko ataletatik ondorio bikoitza atera genezake. Alde batetik, ekonomia sozialak azken 40 urtetan sendotze prozesu bat bizi izan du, eta hau neurri handi batean sektorea figura juridiko konkretuekin identifikatzetik dator. Sektorea modu horretan definitzeak erraztu egiten du berau ikusgarri egitea, datu estatistikoen bitartez (nazio kontabilitate arauetara egokituak) neurtzea, eta sektorearen sustapenerako politika publikoen *target*a hobeto mugatzea.

Sendotze bidean mesedegarri izan den hautu horrek berak, alabaina, bestelako ondorio ezkorragoak ere ekarri ditu, kontzeptuaren mugak agerian utziz: nazioartean homologagarri izatea zailtzen da, figura juridikoak eta horien gaineko erregulazioa ezberdina baita herrialde ezberdinen artean. Baina homologazio arazo hauez gain, badira gure iritzian sakonekoak diren beste bi arazo, ekonomia sozialaren potentzialtasuna bera mugatzen dutenak:

> (1) Kontzeptuak ezikusiarena egiten duenean ekonomia sozialaren praktika errealen gainean. Figura juridiko konkretu bat hartzeak ez baitu beti ziurtatzen erakundearen praktikak demokrazian eta elkartasunean oinarrituak izango direnik.

Erretorika eta praktikaren arteko desegokitze baten aurrean geundeke kasu askotan (Perez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015-II).

(2) Kontzeptuak bigarren ezikusi bat egiten du bestelako praktiken gainean. Hau da, ekonomia sozialari loturiko figura juridikoez gain egon badaudelako bestelako praktika demokratiko eta eraldatzaileak, nagusiki ekonomia solidarioaren esparrutik heltzen direnak (Perez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015).

Ekonomia sozialaren inguruko azken bi kritika horiekin bete betean bat egiten du ekonomia solidarioaren proposamenak, zeinak ekonomia sozialaren muga batzuk gainditzea proposatzen baitu aldi berean. Adiera honek elementu berritzaileak eta bizi-berritzaileak eskaintzen dizkio ekonomia sozialaren kontzeptuari jarraian aztertuko dugun moduan.

Laville-k (2013), ekonomia solidarioaren adiera ekonomia sozialaren kontraesanak gainditzeko bide gisa proposatzen du. Laville-ren (2013) irudiko, ekonomia soziala bere garapenean logika propioetatik urruntzen joan da, geroz eta gehiago desbideratuz merkatuko zein estatuko logika nagusietara. Bizi izan dituen isomorfismo prozesu horiek zentzu kritiko baten gabeziari zor zaizkio, ekonomiaz bere osotasunean ez baitu gogoetarik proposatzen, ez eta ekonomia sozialak merkatuan jokatzen duen moduaz ere. Honen iritziz, ekonomia sozialaren helburu behinena gaur egun merkatuetan lehiakor izatea da, izaera sozialeko helburuak bigarren maila batean utziz. Diskurtso eta praktiken arteko "desegokitze" fenomeno gisa ere izendatu izan dira ikuspegi instituzionalistatik prozesuok (Brunsson, 1989; Meyer eta Rowan, 1977). Zentzu horretan, Laville-k (2013) ekonomia sozialeko eragileek berezkoa duten gaitasun eraldatzailea alferrik galtzen uzten dutela uste du.

Hortaz, ekonomia solidarioaren proposamenarekin, ekonomia sozialaren interpretazio tradizionalak dituen zenbait muga gainditzea litzateke helburua, bai bestelako errealitate enpresarialak aintzat hartuz (laneratze enpresak, bidezko merkataritzakoak edo finantza etikoen esparrukoak), baina baita teoria neoklasikoak eskaintzen ez dituen lanabes analitikoak proposatuz ere, ekonomia ulertzeko eta egiteko bestelako modu hauek teorizatu eta azaltzeko. Proposamen honek, beraz, ekonomia sozialaren kontzeptua zabaldu nahi du gutxienik hiru esparrutan (Perez de Mendiguren et al., 2015): i) antolaketa esparruan, ekonomia sozialak aintzat hartzen ez dituen zenbait dinamika barneratuz (ez monetarioak, esaterako); ii) esparru politikoan, ekonomia sozialaren funtzio politikoaren sakontzea proposatuz, eta iii) esparru teorikoan, teoria ekonomiko hegemonikoei aurka egingo dien korpus teoriko berri baten eraikuntzan parte hartuz.

Azkenetik hasita, ekonomia solidarioak ekonomia diziplina zientifiko gisa berrikusteko proposamena ere badakar berekin. Honela, ekonomia solidarioak eskola neoklasikoaren bi zutabe nagusi jartzen ditu kolokan: lehena, *homo economicus*-aren paradigma, zeinak aurreikusten baitu gizabanakoak (zein pertsona juridikoek) modu arrazional, berekoi, lehiakor eta utilitaristan jardungo duela beren jarduera ekonomikoan. Eta bigarren, ekonomia

zientzia formalista, buruaskia eta isolatua denaren usteari ere kontrajartzen zaio (Coraggio, 2009, 2011)[35].

Ekonomia solidarioaren teorialarien iritzian, ekonomia ulertzeko teoria neoklasikoak muga argiak ditu gutxienik hiru esparrutan: i) esparru ekonomikoa isolatu egiten da gainerako gizarte esparruetatik, funtsean merkatuarekin berdintzen baita; ii) era berean, merkatua esparru auto-erregulatzaile gisa ulertzen da, eta beraz berau erregula lezakeen bestelako gizarte-instituzioen beharrik gabekoa; eta iii) enpresa modernoa enpresa kapitalistarekin parekatzen da, analisitik kanpo utziz ezein erakunde ekonomiko ez kapitalista (Laville, 2004).

Marko teoriko neoklasikoaren muga horiek gainditzeko, eredu alternatiboa Polanyi (1997) antropologo ekonomialariak eginiko bi ekarpen giltzarri berreskuratuz eraikitzen da. Batetik ekonomiaren gaineko ikuspegi sustantiboa (*sustantive)* hobestea bultzatzen da, egungo ekonomia konbentzionalak bultzatzen duen ikuspegi formalistaren aurrean. Bigarren, eta lehen ideiari loturik, printzipio ekonomikoen pluraltasunaren aitortza egiten da, harreman ekonomikoetan merkatuko harremanez gain bestelako erregulazio-arau eta balio sinbolikoek ere parte hartzen dutela nabarmenduz. Funtsean, hiru logika edo "integrazio printzipio" ezberdini buruz ari dira, hots, elkartrukea, birbanaketa eta elkarrekikotasuna, eta horietako bakoitza nagusi den esparru ekonomiko ezberdinak finkatzen dira: merkatuko ekonomia, estatua eta esparru komunitarioa, hurrenez hurren.

Proposamen epistemologiko honek, ikerketa akademikoari zorroztasuna gehitzeaz batera, ondorio politiko argiak ere baditu, gizarte jarduera den neurrian ekonomia birgizarteratzea eta birpolitizatzea eskatzen baitu. Zentzu horretan, ekonomia solidarioak ezin du ekonomikoa ez izan (ekonomiaren adiera plural batetik abiatuta), baina ezin du ezta ere apolitikoa edo politikoki akritikoa izan (Dacheux eta Goujon, 2011). Dena den, hainbat autorek argudiatzen du ekonomia solidarioaren funtzio politiko honen inguruan ez dela oraindik batasun edo koherentzia nahikorik erdietsi, ez eta egitasmo ezberdinen arteko artikulazio errealik ere (Coraggio, 2012)[36].

Azkenik, antolaketa-esparruari dagokionez, ekonomia solidarioak bat egiten du ekonomia soziala kontzeptuari egiten zaion "hertsadura juridikoaren" kritikarekin, eta hor gertuago kokatzen da EMES eskolak maneiatzen duen *Social Enterprise* adieratik (Defourny eta Nyssens, 2012). Adiera honek sektorea identifikatzeko hiru dimentsio ezartzen ditu (ekonomikoa, soziala eta parte hartzeari dagokiona) eta beren praktikak printzipio horien arabera burutzen dituzten enpresak kontsideratzen ditu *Social Enterprise* gisa.

35 Ikuspegi neoklasiko honentzat ekonomia gainerako gizarte zientzia eta zientzia natura-letatik aparte uler liteke, modu isolatuan, eta bere interes gune nagusia auto-erregulatzen diren merkatuetan diharduten norbanakoen joera maximizatzailea aztertzea litzateke. Adiera hau kontsi-derazio etiko oroz kanpokoa da, ez baitu zalantzan jartzen, besteak beste, ez gizabanakoen prefe-rentzien legitimotasuna ez eta horiek jasotzen dituzten errenten jatorrien gaineko legitimotasunik ere.

36 Gizarte Ekonomiaren funtzio politikoaren inguruko eztabaidan sakondu nahi izanez gero, ikus: Coraggio, 2012; Perez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015.

5. Ondorioak

Ekonomia sozialak azken 40 urtetan sendotze prozesu bat bizi izan du, eta hau neurri handi batean sektorea figura juridiko konkretuekin identifikatzetik dator. Sektorea modu horretan definitzeak erraztu egiten du berau ikusgarri egitea, datu estatistikoen bitartez neurtzea, eta sektorearen sustapenerako politika publikoen *targeta* hobeto mugatzea.

Gainera esan dezakegu ekonomia sozialaren kontzeptuak baduela gaur egun erakunde mailako ordezkaritza eta onespen publiko zein juridiko garrantzitsua herrialde batzuetan. Bide horretatik, Euskal Herrian, Espainian, Frantzian zein Europa mailan ekonomia sozialaren kontzeptua nahiko finkatua dago, eta finkapen horretan eragin zuzena eduki dute maila anitzetan garatzen joan diren erakunde ordezkari, ebazpen instituzional, ikerlan eta lege garapenek. Hau horrela izanik ere, erreferentzia bezala hartu ditugun bi azterlanetan berresten den moduan gisa horretako entitateak izendatzeko erabiltzen diren kontzeptuak aldakorrak dira herrialdeen arabera. Agerikoa da ekonomia sozialaren aitortzak maila ezberdinak dituela Europako herrialde desberdinetan, eta kontzeptu horren ingurumarian badirela antzeko kontzeptuak, elkarren arteko nolabaiteko lehian aurkitzen direnak.

Hala ere, esan dezakegu Europan ekonomia sozialaren lehian diren kontzeptuen arteko gerturatze bat eman dela, nahiz eta elementu bereizgarri nagusiak hauexek liratekeen: Hirugarren Sektorea adierak merkatuko eragileei atea ixten die eta pertsona boluntarioak barneratzen ditu, eta ekonomia sozialak merkatuko eragileei ateak ez ixteaz gain, pertsonen zerbitzura egindako jarduera kolektibo eta demokratiko gisa bereziten du bere burua.

Baita ere azpimarratzekoa da ekonomia sozialaren kontzeptuaren mugak hor daudela eta muga horiek gainditzeko ekonomia solidarioak proposamen berritzaileak eta biziberritzaileak eskaintzen dizkiola, bereziki ekonomia sozialaren kontzeptua zabaltzeko, bere funtzio politikoa sakontzeko eta teoria ekonomiko hegemonikoei aurka egingo dien korpus teoriko berri baten eraikuntzan laguntzeko. Hau da, ekonomia solidarioak, gizarte jarduera den neurrian, ekonomia birgizarteratzea eta birpolitizatzea eskatzen du.

6. Bibliografia

Barea, J., eta Monzón, J.L. (1995). *Las Cuentas Satélite de la Economía Social en España: una primera aproximación*. Valencia: CIRIEC-España.

Barea, J., eta Monzón, J.L. (2007). *Manual para la elaboración de las cuentas satélite de las empresas de la Economía Social: Cooperativas y Mutuas*. Valencia: CIRIEC-España.

Bouchard, M.J. (2013). *The Social Economy in Québec: a Laboratory of Social Innovation*. In M.J. Bouchard (Ed.), Innovation and the Social Economy (3-24 orr.). Toronto: University of Toronto Press.

Brunsson, N. (1989). *The Organisation of Hypocrisy: Talk, Decisions and Actions in Organisations*. Chichester: John Wiley.

Chaves, R. (1997). Economía política de la economía social. Una visión de la literatura económica reciente. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 25, 141-162.

Chaves, R. (1999). La economía social como enfoque metodológico, como objeto de estudio y como disciplina científica. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 33, 115-139.

Coraggio, J.L. (Ed.). (2009). *¿Qué es lo económico? Materiales para un debate necesario contra el fatalismo.* Buenos Aires: Ciccus.

Coraggio, J.L. (2011). *Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital*. Quito: Abya Yala.

Coraggio, J.L. (2012). *Las tres corrientes vigentes de pensamiento y acción dentro del campo de la Economía Social y Solidaria (ESS): Sus diferentes alcances*. h*ttp*://www.*socioeco*. *org*/*bdf*/*es*/*corpus_document*/*fiche-document-2124.html*. orrialde elektronikotik 2017ko azaroaren 26an hartuta.

Dacheux, E., eta Goujon, D. (2011). *Principes d´ économie solidaire*. Paris: Ellipses.

Defourny, J., eta Nyssens, M. (2012). El enfoque EMES de la empresa social desde una perspective comparada. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 75, 7-34.

Etxezarreta, E., eta Morandeira, Jon (2012). Consideraciones conceptuales sobre la Economía Social a la luz de la Ley 5/2011. *Revista vasca de economía social/ Gizarte ekonomiaren euskal aldizkaria*, 8, 7-36.

Etxezarreta, E., Pérez de Mendiguren J.C., eta Morandeira, J. (2014). *Sobre el concepto de Economía Social y su proceso de consolidación*. In I. Bretos eta J.M. Pérez de Uralde, Economía Social Vasca y Crisis Económica: Análisis de su evolución socioeconómica entre 2009 y 2013 (11-17 orr.). Donostia-San Sebastián: OVES.

Fajardo, G. (2012). El fomento de la economía social en la legislación española. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, 107, 58-97.

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia (2018). EAEko Kooperatibak eta Lan Sozietateak. Zifra orokorrak.http://www.oves-geeb.com/eu/arlo-sozioekonomikoa/enplegua/zifra-orokorrak, 2018ko ekainaren 10ean begiratua.

Itçaina, X. (2017). Ipar Euskal Herriko Gizarte Ekonomiaz. http://www.oves-geeb.com/eu/noticias-eu/detalle-eu/ipar-euskal-herriko-gizarte-ekonomiaz-1011, 2017ko azaroaren 25ean begiratua.

Laville, J.-L. (2004). *El marco conceptual de la Economía social y solidaria*. In J.-L. Laville (Ed.), Economía social y solidaria: Una visión europea (1-25 orr.). Buenos Aires: Fundación OSDE - Universidad Nacional de General Sarmiento-Altamira.

Laville, J-L. (2013). *Économie sociale et solidaire, capitalisme et changement démocratique*. In D. Hiez eta E. Lavillunière (dir), Vers une théorie de l'économie sociale et solidaire, (17-32 orr.). Bilduma: Droit & *économie* sociale et solidaire. Paris: Editions Larcier.

Meyer, J., eta Rowan, B. (1997). Institutional Organizations: Formal Structure as Myth and Ceremony. *American Journal of Sociology,* 83, 340–363.

Monzón, J.-L. (2003). El cooperativismo en la historia de la literatura económica. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 44, 9-32.

Monzón, J.-L. (2006). Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 56, 9-24.

Monzón, J.-L. (dir.). (2010). *Las grandes cifras de la Economía Social en España. Ámbito, entidades y cifras clave año 2008*. Valencia: CIRIEC.

Monzón, J.-L. (2016). La economía social en la literatura económica y en los hechos. 30 años del CIRIEC-España. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 88, 287-307.

Monzón, J.-L., eta Chaves, R. (2012). La Economía Social en la Unión Europea. Bruselas: Comité Económico y Social Europeo.

Monzón, J.-L., eta Chaves, R. (2016). *Evolución reciente de la economía social en la Unión Europea*. Bruselas: Comité Económico y Social Europeo.

Pérez de Mendiguren, J.-C., eta Etxezarreta, E. (2015). Sobre el concepto de economía social y solidaria: aproximaciones desde Europa y América Latina. *Revista de Economía Mundial,* 40, 123-144.

Pérez de Mendiguren, J.-C., eta Etxezarreta, E. (2015-II). Otros modelos de empresa en la economía solidaria: entre la retórica y la práctica. *Lan Harremanak Aldizkaria,* 33, 227-252.

Pérez de Mendiguren, J.-C., Etxezarreta, E., eta Guridi, L. (2009): Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate. *Papeles de Economía Solidaria*, 1, 1-41.

Pérez De Uralde, J.-M. (2014). La inaplicación de la Ley de Economía Social en un contexto de crisis económica. Algunas interpretaciones y propuestas. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 81, 33-59.

Polanyi, K. (1997). *La Gran Transformación*. Madrid: Ediciones de La Piqueta.

Quarter, J., Mook, L., eta Armstrong, A. (2009). *Understanding the social economy: A Canadian perspective*. Toronto: University of Toronto Press.

Salamon, L. M., eta Sokolowsky, W. (2014) The Third Sector in Europe: towards a consensus conceptualization. *TSI Working Paper Series* nº 2. Seventh Framework Programme (grant agreement 613034), European Union, Brussels: Third Sector Impact.

Ugalde, I. (2017). Navarra Capital, información para las empresas. http://navarracapital.es/navarra-unico-territorio-europeo-que-ha-incorporado-la-economia-social-a-su-s3/, 2018ko ekainaren 10ean begiratua.